

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FRANTZIAKO ONDAREAREN ETA ARKITEKTURAREN MEDIATEKA

IRUDIAK TESTIGANTZARI GAIN HARTU ZIONEKOA

Garai batean, bidaiariek beren testigantzen bidez ematen zuten bisitatzen zituzten lekuen inguruko ikuspuntua. Kasu askotan, testigantza horiek «in situ» eginiko marrazkiekin osatzen ziren. Argazkigintzaren jaiotzearekin, ordea, testigantzak argazkiengan-dik ordezkatu ziren. Hala egin zuen Henry de Lestrangeko kondeak ere. XIX. mendean Euskal Herrian hartu zuen lur frantses aristokratik, eta Hondarribian, Hendaian eta Pasaian eginiko hamaika argazki utzi zituen, 1896. urtearen bueltan eginak guztiak ere, goikoa kasu. Egun, bere argazkiak Parisen aurkitzen dira, Frantziako Ondarearen eta Arkitekturaren Mediatekan.